Zarauzko Udala

EMAKIDA ADMINISTRATIBOA, PROZEDURA IREKI BIDEZ ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA **JABARI PUBLIKOAREN ZATI BATEN ERABILERA PRIBATIBOA : ZARAUZKO HONDARTZAN ALOKAIRUKO TOLDOAK JARTZEA**		**PLIEGOS DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DE UNA CONCESIÓN , POR PROCEDIMIENTO ABIERTO** **USO PRIVATIVO DE UNA PORCIÓN DE DOMINIO MARITIMO TERRESTRE: INSTALACIÓN DE TOLDOS DE ALQUILER EN LA PLAYA DE ZARAUTZ**
2026IK200001		**2026IK200001**
1.KONTRATUAREN XEDEA Constituye el objeto del presente pliego otorgar la concesión administrativa para el uso privativo de una porción de dominio marítimo terrestre para la instalación de toldos de alquiler en la playa de Zarautz: -Toldoak alokatzen dituzten pertsonei kasu egitea. -Hondartzan jarritako elementuak muntatu, desmuntatu, mantendu, zaindu eta biltegiratzea. -Toldoak alokatzeko zerbitzua eman eta kudeatzea. **2. DENBORALDIETAKO DATAK** Oro har, ekainaren 1etik irailaren 15a bitarteko egun guztiak hartuko ditu udaldi ofizialak (bi horiek barne). Udaldi hori zabaldu ahal izango du Udalak, udaldiaren hasieran aurreko astera arte eta udaldiaren bukaeran hurrengo asteburura arte. Aldaketa horiek ez dute inongo aldaketa ekonomikorik ekarriko ez alde batentzat, ez bestearentzat. **3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA** **<u>3.1 TOLDOEN ALOKAIRUA</u>** *3.1.1. ORDUTEGIA*		**1. OBJETO DEL CONTRATO** El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá como objetivo otorgar concesión administrativa para el uso privativo de una porción de dominio marítimo terrestre para la explotación del servicio de alquiler de toldos en la playa de Zarautz, según se detalla: • Atención a las personas abonadas de toldos • Realización de trabajos de montaje, desmontaje y mantenimiento, conservación y almacenaje de los elementos instalados en la playa • Prestación y gestión del servicio de alquiler de toldos **2.- FECHAS DE TEMPORADA** Con carácter general la temporada estival oficial es aquella que abarca los días comprendidos entre el 1 de junio y el 15 de septiembre, ambos inclusive. Las fechas mínimas de temporada las podrá ampliar el Ayuntamiento hasta el fin de semana anterior en el inicio, y hasta el fin de semana posterior en su término. Dichas variaciones no conllevarán modificación económica alguna para ninguna de las partes. **3- DESCRIPCION DEL SERVICIO** **3.1. <u>ALQUILER DE TOLDOS</u>**

Udalak bakarrik jarri eta aldatu ahal izango ditu zerbitzuaren ordutegiak. Jendea atenditzeko eguneroko ordutegia gutxi gorabehera honakoa izango da: goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:30era. Zerbitzua denbora osoan emango da, etenik gabe, eta horretarako, emakidadunak behar bezala antolatuko ditu bere langileak. Langileen agintari arduraduna lokalizatuta egongo da denbora guztian, goizeko 9.30etik gaueko 20:00etara *3.1.2 INSTALAZIOEN JABETZA* Lizitatzen duetenak zerbitzuaren xede diren instalazio eta materialen jabeak izan behar dira, eta eurek ordaindu beharko dituzte sortzen diren gastu guztiak. *3.1.3 ANTOLAMENDUA ETA BANAKETA* Zerbitzu hau emateko orduan, Udalaren eskumena da hondartzaren antolamendua egitea, indarrean dagoen araudiko gidalerroen arabera (Kosten Legea eta lege hori garatzen duen erregelamendu orokorra) eta Eusko Jaurlaritzako Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak onartu eta gero. Hondar gainean jartzen diren instalazio guztiak desmuntagarriak izango dira, eta 2. eranskinean adierazitako lekuan jarriko dira gutxi gora behera. *3.1.4. ZERBITZUEN IRISMENA* Toldoak muntatu eta desmuntatzeko, kasu bakoitzean Udalaren zerbitzu teknikoek ezartzen dituzten gidalerro eta adierazpenak hartuko dira kontuan. Toldoen muntatze- eta desmuntatze-lanak emakidadunak dituen giza baliabideekin eta baliabide materialekin egingo dira. Denboraldiaren hasieran hondarra pixka bat mugitu behar izanez gero, hala nola lurraren		*3.1.1. HORARIO* Los horarios para la prestación de los servicios los fija y modifica exclusivamente el Ayuntamiento. El horario diario de atención al público será de forma orientativa el siguiente: de 10:00 a 19:30 horas, prestándose de forma ininterrumpida, sin pausas de descanso, para lo cual la concesionaria organizará a su personal adecuadamente. El personal de mando responsable deberá estar permanentemente localizado entre las 09:30 y las 20:00h. *3.1.2. PROPIEDAD DE LAS INSTALACIONES* Quienes liciten deberán ser las personas propietarias de las instalaciones y materiales que constituyen el objeto del servicio, siendo de su cargo todos los gastos que se originen. *3.1.3. ORDENACION Y DISTRIBUCION* La ordenación de la playa a efectos de la prestación de este servicio, es competencia del Ayuntamiento, que la efectúa bajo las directrices establecidas por la normativa vigente (Ley de Costas y el Reglamento General que la desarrolla) y sometido a aprobación de la Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral del Gobierno Vasco Las instalaciones sobre la arena serán todas desmontables, y se ubicarán de modo orientativo según lo indicado en el Anexo nº2. *3.1.4. ALCANCE DE LOS SERVICIOS* Los trabajos de montaje y desmontaje deberán realizarse de acuerdo a las directrices e indicaciones que establezcan en cada caso los servicios técnicos del Ayuntamiento. Los trabajos de montaje y desmontaje se realizarán con los medios humanos y materiales de la concesionaria.

nibelazio txikiak edo zerbitzuko zutoinak instalatzeko putzu/zuloak irekitzea, emakidadunak egingo ditu mugimendu horiek. Salbuespenezko kasuetan, toldoak jarriko diren hondartzako eremua berdintzeko hondar asko mugitu behar izanez gero (150 m baino gehiagoko luzera x 6 m baino gehiagoko sakonera duten azalerak), Udalak egingo ditu lan horiek.		Los pequeños movimientos de arena, tales como pequeñas nivelaciones del terreno o la apertura de pozos/agujeros para la instalación de los postes del servicio, que hubiera que hacer al inicio de la temporada los realizará la concesionaria En casos excepcionales, en los que el movimiento de arena que hubiese que ejecutar para nivelar la zona de la playa donde se asientan los toldos fuera de gran alcance (superficies mayores de 150m. longitud x 6m. de fondo), el Ayuntamiento será el que se haga cargo del trabajo.
Denboraldia hasi baino gutxienez egun bat lehenago eta gehienez bi aste lehenago egongo dira jarrita toldoak, eta denboraldia bukatu eta askora jota hurrengo bi asteetan kenduta egon beharko dira. Denboraldi osoan zehar egoera ezin hobean mantendu beharko dira toldoak, hau da, garbitu egin beharko dira grafito eta pegatinak, kalteak konpondu...		El montaje de los toldos deberá estar realizado como mínimo un día antes del inicio de la temporada y como máximo dos semanas antes del inicio de la temporada, y realizar el desmontaje como máximo dos semanas después de la finalización de la temporada, debiendo mantenerse en perfecto estado a lo largo de la temporada, lo que implica limpieza de grafitos, pegatinas, reparación de desperfectos…
Instalazio guztiak desmuntatu egingo dira denboraldia amaitzean (instalazioaren elementuak eusteko jarri ahal izan diren lurperatutako oinarriak barne), eta hondartzan instalatutako elementu osagarriak ezingo dira urte osoan mantendu.		Todas las instalaciones serán desmontadas al finalizar la temporada (incluidas las bases enterradas que pudieran colocarse para la sujeción de los diferentes elementos de la instalación), no pudiendo mantener elementos auxiliares instalados en la playa durante todo el año.
Hondartzan toldoak bata bestearen ondoan jarriko dira, estetika eta neurri batzuen arabera. Gehienez ere 551 toldo jarri ahalko dira.		Se colocarán a lo largo de la playa, con una determinada estética y dimensión, no superando en total la cuantía de 551 unidades.
Denboraldi osorako adierazitako toldo kopurua ezin izango da aldatu.		El número de elementos que se establezcan será inamovible durante toda la temporada.
Dena dela, Kosten araudia betetzeko, toldo kopuru hori aldatzeko aukera izango du Udalak, hondartza-denboraldi bakoitzean.		No obstante, el Ayuntamiento se reserva el derecho a poder variar dicha cuantía en cada temporada de playa al objeto de dar cumplimiento a la normativa de Costas.
Denboraldi osoan zehar emakidadunak behar diren bitartekoak eta antolaketa-sistema eduki beharko ditu, egunaren bukaeran, zerbitzua bukatu eta beranduen jota ordubetera jasotzeko zerbitzuko materialak (toldoak, aulkiak, ...). Toldoetako aulkiak kandadu baten bidez zutabeetara lotuta utzi beharko dira.		A lo largo de toda la temporada la concesionaria proveerá a su cargo los medios y el sistema organizativo correspondiente de forma que se garantice la recogida del material del servicio (toldos, sillas, ...) una vez terminada la jornada diaria en un plazo no superior a una hora desde el fin de la jornada al público. Las sillas

Goizero ireki beharko dira toldoak eta gauero itxi edo bildu. Larrialdi kasuetan, edo ezohiko beste kasu batzuetan, toldoak ixteko eta irekitzeko edo ezarritako ordutegiak aldatzeko agindua eman dezake Udalak, hala badagokio sorospen zerbitzuarekin koordinatuta.		correspondientes a los toldos, quedarán atadas a los postes mediante candados. Diariamente, deberán abrirse al inicio de la jornada y cerrarse o recogerse al finalizar ésta. En caso de emergencia, u otro acontecimiento extraordinario, el Ayuntamiento y según el caso en coordinación con el servicio de socorrismo, podrá decretar la no apertura y cierre de los toldos, así como la modificación de los horarios establecidos.
Lan horiek helburu hauek dituzte: batetik, materiala ez sakabanatzea, ondo erabiltzea, marea igotzen denean ez desagertzea, ekintza bandalikoak ekiditea; eta bestetik, zerbitzuaren ohiko ordutegitik kanpo hondartza txukun mantentzea. Era berean, egunero egiten diren bahetze-lanak ez oztopatzeko moduan jasota geratu beharko du hondartzak.		El objetivo de estos trabajos es evitar la dispersión, malos tratos, desaparición por la subida de la marea, actos vandálicos, que pudieran afectar a los materiales, y por otra parte ofrecer una playa ordenada fuera de los horarios normales de servicio. Asimismo, la playa quedará recogida de manera que no se entorpezcan los trabajos diarios de cribado.
Erabilera eta kontserbazio egoera ezin hobean egongo dira toldoak denbora guztian.		Deberán estar permanentemente en las mejores condiciones de uso y estado de conservación.
Emakidadunak kartelak jarriko ditu hondartzan, ordutegiak, prezioak... adierazteko. Horiek jarri aurretik Udalarekin adostu beharko da kartelen edukia, diseinua eta kokapena.		La concesionaria instalará en la playa carteles indicativos de los horarios, precios, … previa conformidad con el Ayuntamiento sobre su contenido, diseño y emplazamiento de los mismos.
Emakidadunak egingo ditu toldoen zerbitzuko abonuak (denboraldikoa, hilabetekoa edo astebete baino gehiagokoa) eta eguneko eta astebeteko alokairuak kontratatzeko lanak.		Para el servicio de toldos los trabajos de contratación de los abonos (de temporada, mensual, o más de 1 semana), alquiler diario y de 1 semana se realizarán por la concesionaria
Erabiltzaile batek toldo bat alokatzen dionean emakidadunari, honako hauek edukitzeko eskubidea izango du, bien artean adostutako epean zehar: TOLDO 1 + BANKU 1 + AULKI 1.		Cuando una persona usuaria contrata con la concesionaria el alquiler de un toldo, tiene derecho durante el periodo acordado entre ambos, a disfrutar de: 1 TOLDO + 1 BANCO + 1 SILLA
3.1.5 MATERIALAK Erabiltzen diren materialak berriak izango dira eta hala ez bada, egoera ezin hobean egon beharko dute, eta emakidadunaren jabetzakoak izango dira. Estetikari dagokionez, bat etorriko dira inguruarekin, ohiturekin eta toldoen		*3.1.5. MATERIALES* Los materiales a utilizarse serán nuevos o deberán estar en perfecto estado y serán de propiedad de la concesionaria

helburu turistikoarekin. Ezaugarri berberak izango dituzte guztiek. Zarauzko Udalaren ohiko modeloetara egokituko dira toldoak, eta zuri eta urdin/berde kolorekoak izango dira. 3. eranskinean zehazten dira toldoen eta aulkien ezaugarriak.		En cuanto a su estética, éstos serán acorde con su entorno, costumbre y al carácter turístico al que sirven. Todos tendrán las mismas características. Los toldos se ajustarán a los modelos habituales del Ayuntamiento de Zarautz, siendo el color blanco y azul/verde. En el Anexo nº3 se especifican las características de los toldos y las sillas.
3.1.6 INSTALAZIO FINKOAK Agiri hauetan adierazitako zerbitzuak behar bezala emateko, Udalak hondartzan dituen lokaletan gordeko ditu toldoak emakidadunak (aurrefabrikatutako 3 kaseta eta San Luisen azpialdean dagoen biltegi egokitua). Lokal horiek bezeroentzako arretarako gune eta toldoen biltegi gisa erabiliko ditu. 4. eranskinean lokalaren kokalekua eta neurriak adierazten dituen planoa dago. Erabat debekatuta dago plegu hauetan adierazi ez den beste edozein aprobetxamendu edo zerbitzu egitea, hau da, pleguetan jasotako aldagela eta material-biltegiaren zerbitzuarekin zerikusirik ez dutenak egitea, zerbitzua emateko laga diren udal lokaletan.		*3.1.6. INSTALACIONES FIJAS* Para la debida prestación de los servicios indicados en el presente Pliego la concesionaria utilizará los locales de la playa (3 casetas prefabricadas y un local acondicionado en los bajos de San Luis) como punto de atención al cliente y como almacén de toldos. En el anexo nº4 se adjunta plano con la ubicación y dimensiones del local. Queda totalmente prohibido realizar aprovechamientos y servicios diferentes a los indicados en el presente Pliego, esto es, ajenos al servicio de vestuarios y almacén del material que se contempla en el pliego, en los locales municipales cedidos para la realización del Servicio.
3.1.7. ZERBITZUAK ETETEA Eguraldi txarra egiten duenean, zerbitzuak eteteko baimena eman ahal izango dio Udalak emakidadunari. Ondorio horietarako, emakidadunak, kontrakorik adierazi ezean, zaintza-talde bat izango du, bat-bateko eguraldi-aldaketen aurrean zerbitzua bermatzeko, eta, era berean, ondoren zerbitzuak azkar bere onera ekartzea bermatzeko. Emakidadunak kontuan hartu beharko du aurreko urteetan Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzu Probintzialari itsasgorak eragindako eremuan toldoak kentzeari buruz egindako kontsultaren dokumentua (ikus 1. eranskina). Izan ere, litekeena da datozen udako denboraldietan toldoak alokatzeko zerbitzua antzeko baldintzetan egin behar izatea.		*3.1.7. INTERRUPCIÓN DE LOS SERVICIOS* El Ayuntamiento podrá autorizar a la concesionaria, en casos de mal tiempo atmosférico, la interrupción de los servicios. A estos efectos, la concesionaria dispondrá, salvo indicación en contra, de un retén que garantice la prestación en aquellos supuestos de cambios bruscos de tiempo, y que garantice asimismo la rápida normalización posterior de los servicios. La concesionaria tendrá que tener en cuenta el documento relativo a la consulta realizada en años anteriores con el Servicio Provincial de Costas en Guipúzcoa para la retirada de toldos en la zona afectada por la pleamar (ver Anexo nº1). Dado que es posible que en las próximas temporadas de verano deba ejecutarse el servicio de alquiler de toldos en similares condiciones.

4. EMAKIDADUNAREN LANGILEAK Baldintza Teknikoen Agiri honetan zehaztutako lan guztiak egiteko behar beste langile eta behar den baldintzetan eduki beharko du emakidadunak momentu guztian. Toldoak alokatzeko zerbitzurako, deskribatutako zerbitzua emateko beharrezko langileak izan beharko ditu emakidadunak. Eguraldi ona egiten duenean eta/edo hondartza-egun normal bat denean, gutxienez langile hauek egongo dira: arduradun 1 + 7 laguntzaile Emakidadunaren gain eta kontura izango da lanpostuaren ustiaketa, eta horrek ez dio inongo lan-harremanik ekarriko Udalari. Zerbitzuak betetzeko behar diren zuzeneko nahiz zeharkako giza baliabideak eduki beharko ditu emakidadunak; baliabide horien bidez bermatuko da lehiaketa honen xede diren lanak behar bezala egingo direla eta sortzen diren ezustekoak beteko direla (besteak beste, gaixotasun edo istripu bajak, lan-absentismoa, baimenak, sindikatuko lanak eta behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk). Horrelakoetan berehala jarri beharko dira ordezkoak. Emakidadunak izendatutako pertsonari helaraziko zaizkio Udalaren iritziz beharrezkoak diren argibide guztiak. Dena den, enpresaren zuzendaritzari ere helarazi ahalko dizkio. Udaleko langileek sarrera irekia izango dute beti, instalazioen segimendua egiteko. Emakidadunaren langileek ez dute inoiz laneko, kontratuko, funtzioko edo bestelako lotura edo harremanik izango Zarauzko Udalarekin, eta emakidadunak hala adierazi beharko die langileei, kontratuetan espresuki hori jasota. Jakinaraziko die, halaber, esleipena bukatzen denean ez dela traspasorik egingo, Udalak zerbitzua bereganatu edo jarraipena beste enpresaren bati adjudikatu izanagatik.		**4.- PERSONAL DE LA CONCESIONARIA** La concesionaria deberá disponer en todo momento del personal necesario en número y condiciones para efectuar todos los trabajos especificados en el presente Pliego de Condiciones Técnicas. Para el servicio de alquiler de toldos la concesionaria tendrá que disponer del personal necesario para dar el servicio descrito en anteriores. En condiciones de buen tiempo atmosférico y/o con afluencia normal de público a la playa, la dotación mínima de personal será de: 1 persona encargada + 7 personas ayudantes. La explotación del puesto será a riesgo y ventura de la concesionaria sin que se derive relación laboral alguna para el ayuntamiento. La concesionaria deberá disponer para realizar los Servicios los medios humanos tanto directos como indirectos necesarios para asegurar en todo momento la ejecución de los trabajos objeto del concurso y cubrir eventualidades como bajas por enfermedad o accidente, absentismo laboral, permisos, labores sindicales, y otras causas debidamente justificadas. Dichas ausencias o bajas del personal deberán ser cubiertas de forma inmediata. Todas las indicaciones que el Ayuntamiento crea necesarias, serán dirigidas a la persona que designe la concesionaria, sin perjuicio de poderlas dirigir igualmente a la dirección de la empresa. El personal del Ayuntamiento tendrá libre acceso para el seguimiento de las instalaciones. El personal de la concesionaria en ningún supuesto tendrá vinculación o relación laboral, contractual, funcional o de naturaleza alguna con respecto al Ayuntamiento de Zarautz, debiendo dicha concesionaria tener informada a su personal de dicho extremo, haciendo constar, en los contratos de personal que realice, expresamente esta

5.EMAKIDADUNAREN BETEBEHARRAK Emakidadunak txosten bat bidaliko du urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen; bertan, denboraldiari buruzko informazio hau eman beharko du: ▪ Erabiltzaileei buruzko datu estatistikoak (kopurua, jatorria…) ▪ Eguraldiari buruzko datu estatistikoak ▪ Enplegatutako langileen zerrenda, ▪ Erabilitako inprimakien laginak ▪ Muntatu eta desmuntatutako instalazioen argazkiak ▪ Toldoen zerbitzuan erabiltzen den materialaren zerrenda ▪ Egon diren gertakari garrantzitsuenen zerrenda ▪ Zerbitzu hobea emateko iradokizunak ▪ Hala badagokio, zerbitzu hobea eman ahal izateko sartu diren berrikuntzak ▪ Balantze ekonomikoa. Hor azalduko dira egindako gastuak (langileak, materiala, garbiketako produktuak… zehaztuta) eta zerbitzuko diru-sarrerak (denboraldiko toldo-kopurua, hilabetekoa, egunekoa eta gainerako diru-sarrerak zehaztuta) Emakidadunak bete egin beharko ditu Udalak zerbitzuaren prestaziorako adierazten dituen baldintzak, eta konpromisoa hartuko du jarritako arauak erabiltzaileari betearazteko eta antzematen dituen arau-hausteak Udalari jakinarazteko (azpierrentamenduak, erabilera okerra, tratu txarrak...). Emakidaduna derrigortuta dago pertsona guztiei zerbitzuak ematera, baina eskubidea		circunstancia, así como que al término de la adjudicación no se producirá el traspaso por el hecho de asumir el Ayuntamiento la prestación del servicio o adjudicar esta conservación a otra empresa. **5.- OBLIGACIONES DE LA CONCESIONARIA** La concesionaria se obliga a presentar antes del 31 de diciembre de cada año un informe dando cuenta del desarrollo de la temporada que contendrá referencias sobre: – Datos estadísticos de personas usuarias (número, procedencia, ...). – Datos estadísticos del estado climatológico. – Relación de personal empleado. – Muestras de los impresos utilizados – Fotografías de las instalaciones montadas y desmontadas. – Inventario del material empleado en el servicio – Relación de incidentes más notables que se hubiesen producido. – Sugerencias en orden a una mejor prestación. – Novedades introducidas, en su caso, en orden a una mejor prestación. – Balance económico, en el que conste los gastos efectuados (especificando: personal, material, productos de limpieza, …) y los ingresos del servicio (especificando: toldos de temporada, mensual, día; resto de ingresos) La concesionaria se ajustará a las condiciones señaladas por el Ayuntamiento para la prestación de los servicios, comprometiéndose a hacer cumplir a las personas usuarias las normas establecidas, y a advertir al Ayuntamiento sobre las posibles infracciones que detecten (subarriendos, usos indebidos, malos tratos...).

izango du, baita, gutxieneko jokabide-arauak betetzen ez dituztenei ez emateko. Toldoen erabiltzaileei (egunekoak edo astebetekoak) tiket bat emango zaie zerbitzu bakoitzarekin, egindako ordainketaren frogagiri modura. Abonua hartzen duten erabiltzaileen kasuan, berriz, emakidadunak nahi duen bestetan eskatu ahalko du ordaindu izanaren frogagiria zerbitzua eman baino lehen. Ordainketaren bi frogagiri horiek erabiltzailearentzako informazioa edukiko dute, eta Udalak errebisatu egingo ditu. Era berean, erabiltzailea ondo tratatzen saiatuko da. Langileak hondartzan dauden denbora guztian uniformea jantzita egongo dira. Uniformearen diseinuak argi erakutsi beharko du arduraduna nor den. Uniformea honela osatuta egongo da: kamiseta (ahal dela urdina eta/edo zuria) eta identifikazioko anagrama inprimatuta duena; kolore bakarreko galtza motzak edo luzeak (ahal dela urdin ilunak); hondarretan ibiltzeko oinetako egokiak; eta txanoa (kamisetari edo galtzari ondo datorkiona). Udalak adierazi bezalaxe egin beharko du instalazioen muntaketa emakidadunak. Hau da, ezingo ditu bere kabuz aldatu, inolaz ere, ofizialki adierazten zaizkion epeak eta kopuruak, ez denboraldiko abonuen kasuan ez eta eguneko eta astebeteko modalitateetan ere. Ezinbestean izan ezik, emakidaduna behartuta dago instalazio guztiak erabiltzeko prest edukitzera denboraldiaren hasieraren aurreko egunerako. Era berean, denboraldiaren bukaeraren hurrengo bi astetan eramateko moduan prest izan beharko ditu instalazio guztiak. Denboraldi osoan zehar, erabileraren, segurtasunaren eta garbiketaren aldetik, instalazioak baldintza ezin hobeetan		La concesionaria se obliga a prestar los servicios a todas las personas, reservándose el derecho de otorgarlo a aquellas que no observen las normas mínimas de conducta. A las personas usuarias de toldos (en la modalidad de día o 1 semana) se les entregará con cada servicio el ticket acreditativo del abono efectuado. Y respecto a las personas usuarios de abono, la concesionaria exigirá el justificante de pago cuantas veces lo consideré oportuno antes de efectuar el servicio. Ambos modelos de justificante de pago, incorporarán información para la persona usuaria, y serán revisados por el Ayuntamiento. Asimismo, cuidará que el trato con la persona usuaria sea esmerado. Las personas que presten el servicio estarán en todo momento durante su permanencia en la playa uniformadas. El uniforme se diseñará de tal forma que permita una perfecta identificación del responsable. Constará de camiseta, con preferencia azul y/o blanca, con anagrama impreso que le identifique; pantalón corto o largo, de un solo color, preferencia azul marino; calzado apropiado para la arena; y gorro a tono con la camiseta o pantalón. La concesionaria realizará el montaje de las instalaciones siguiendo estrictamente las indicaciones que señale el Ayuntamiento, no pudiendo modificar unilateralmente en ningún caso los plazos y cantidades que oficialmente se le indiquen, tanto respecto a los abonos de temporada como para las modalidades de día o semana. La concesionaria, salvo causa de fuerza mayor, se obliga a tener totalmente preparadas para su uso todas las instalaciones, el día anterior al señalado como inicio de la temporada. Así mismo se obliga a tener preparadas para su traslado todas las instalaciones dentro de las dos semanas posteriores al señalado como fin de la temporada.

mantendu beharko ditu emakidadunak. Eta bera arduratuko da egin behar diren konponketen berri udal teknikariei berehala emateaz eta hondatutako elementuak ordezkatzeaz.		La concesionaria se obliga, durante la temporada, a mantener las instalaciones en perfectas condiciones de uso, seguridad y limpieza, siendo su responsabilidad informar inmediatamente a los técnicos del Ayuntamiento de las reparaciones que fueran necesarias, así como la sustitución inmediata de aquellos elementos deteriorados.
Emakidadunak garbitasun, segurtasun eta higiene egoera onean edukiko du zerbitzua emateko okupatzen duen hondartza zatia. Beharrezkoa bada osatu egin beharko du udalerriak kontratatutako ohiko garbiketa.		La concesionaria se obliga a mantener en buen estado de limpieza, seguridad e higiene, la porción del sector de las playas que ocupe para la prestación del servicio, complementando, si fuese necesario, la limpieza habitual contratada por el municipio.
Emakidadunak aurre egin beharko die zerbitzua oker emateagatik pertsonei eta gauzei zuzenean eragindako kalte eta galerei.		La concesionaria responderá de los desperfectos y daños que se ocasionen a personas y cosas que sean consecuencia directa de una mala diligencia en la prestación del servicio.
Emakidadunak ezingo du inolako publizitaterik egin ez uniformeetan, ez eta erabiltzen dituen instalazioetan ere.		La concesionaria no podrá efectuar ningún tipo de publicidad tanto en uniformes como en todas las instalaciones que utilicen.
Emakidadunak ezin izango du kontratazioaren xede ez beste aprobetxamendu edo zerbitzurik egin, ez eta kontratua aldatu ere.		La concesionaria no podrá realizar aprovechamientos y servicios diferentes al establecido como objeto de la contratación, así como modificaciones en la misma.
Udalaren baimenik gabe, emakidadunak ezingo du, inolaz ere, zerbitzua emateko baimena laga edo eman.		La concesionaria no podrá, en modo alguno ceder o traspasar la autorización para la prestación del servicio, sin contar con la autorización municipal.
Gerta liteke bat-bateko egoeren ondorioz instalazioak tokiz aldatu behar izatea; emakidadunak halakoetan ez du inolako kalte-ordainik jasoko.		La concesionaria se obliga a soportar el cambio de emplazamiento de las instalaciones por circunstancias sobrevenidas, sin derecho a indemnización alguna.
Emakidadunak urtero aurkeztu beharko ditu zerbitzu bakoitzeko tarifak.		La concesionaria deberá presentar anualmente las tarifas para cada servicio.
Emakidadunak berehala jakinarazi beharko du zerbitzuari buruzko edozein gorabehera, eta, gehienez ere 24 orduko epean, idatziz erantzun beharko dio zerbitzua emateari buruzko edozein errekerimenduri.		La concesionaria deberá comunicar inmediatamente cualquier incidencia relativa al servicio y responder, por escrito, en el plazo máximo de 24 horas a cualquier requerimiento relativo a la prestación del servicio.
Emakidaduna arduratuko da plegu honetan ezarritako zeregin guztiak betetzeko behar beste langile edukitzeaz. Langile horiek ez du izango inolako loturarik edo lan-harremanik izan Udalarekin, eta		

emakidadunarekiko mendekotasun bakarra eta esklusiboa izango dute.		La concesionaria se encargará de disponer del personal suficiente para llevar a cabo todas las tareas establecidas en este pliego.. Dicho personal no tendrá vinculación ni relación laboral alguna con el Ayuntamiento, siendo su dependencia única y exclusiva con la concesionaria
Gaixotasunagatiko bajei, ordezkapenei eta abarri dagokienez, emakidadunak zerbitzua behar bezala emango dela bermatzeko moduan antolatu beharko du lana.		La concesionaria en lo concerniente a bajas por enfermedad, sustituciones, etc. deberá organizar el trabajo de tal forma que quede, en todo momento, garantizada la correcta prestación del servicio.
Langileek behar bezala uniformatuta eta identifikatuta eman beharko dute zerbitzua. Hori emakidadunaren kontura izango da.		El personal deberá prestar el servicio debidamente uniformado e identificado a costa de la concesionaria
Behin lanaldia amaituta, emakidadunak hondakinak jaso eta hurbilen dituen bilketa-edukiontzietara bota beharko ditu 23:00ak baino lehen. Ezingo ditu inolaz ere gaikako bilketarako edukiontziak erabili, ezta Itsasertzeko pasealekuan jarritako paperontziak ere, sortutako hondakinak uzteko.		Una vez finalizada la jornada la concesionaria deberá recoger los distintos residuos y depositarlos antes de las 23:00 horas en los correspondientes contenedores de recogida más cercanos. No podrá en ningún caso utilizar los contenedores de recogida selectiva ni las papeleras instaladas en el Paseo Marítimo para depositar los residuos originados.
6. UDALAREN BETEBEHARRAK		**6. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO**
Udalak gastu hauek hartuko ditu bere gain: - Etxola aurrefabrikatuak muntatzea - San Luis lokaleko elektrizitatearen eta uraren kontsumoa		El Ayuntamiento correrá con los gastos de: - Montaje de las casetas prefabricadas - Consumo de electricidad y agua del local San Luis
7.- ZERBITZUEN KONTROLA		**7.- CONTROL DE LOS SERVICIOS**
Udalak emakidadunak egunero egiten dituen lanak zaintzeko ahalmena du, baita kontratuan esku hartzen duten baliabide materialak eta giza baliabideak ikuskatzekoa ere.		El Ayuntamiento se reserva la facultad de vigilar las diferentes labores realizadas diariamente por la concesionaria, así como la inspección de los medios materiales y humanos que intervienen en el contrato.
Era berean, Udalak beharrezko ikuskapena egingo du emakidadunak bere gain hartzen dituen lan-betebehar guztiak betetzen dituela bermatzeko.		Del mismo modo, el Ayuntamiento se reserva la inspección precisa para garantizar el cumplimiento de cuantas obligaciones laborales contraiga la concesionaria
Kontrol horren ardura duten udal-langileen jarraibide eta erabakiak lotesleak izango dira emakidadunarentzat		
Udal-zerbitzuen eskumena izango da une bakoitzean ezohiko jarduerei buruz hartu		Las instrucciones y decisiones del personal municipal responsable de este control serán vinculantes para la concesionaria

behar diren irizpideak ezartzea, hala nola hainbat arrazoirengatik egindako jarduera bereziak (ekitaldiak hondartzetan, denboraleak, etab.).		Será facultad de los servicios municipales establecer los criterios que en cada momento haya que adoptar referido a actuaciones no habituales o extraordinarias tales como actuaciones especiales por causas diversas (eventos en las playas, temporales, …)
8.- INGURUMEN-IRIZPIDEAK Nahitaez bete beharreko irizpideak - Materiala: o Garbiketako produktuak, ingurumena hobeto errespetatzen duten materialez egindakoak. Garbiketako produktuen ontziak behar bezala etiketatuta egongo dira. Ekoetiketaren batean definitutako irizpideak bete behar dituzte; esate baterako Europa Batasuneko Etiketa Ekologikoan, Zisne Nordikoa Etiketan edo, produktuaren formulazioan dauzkaten osagai kimikoei dagokienez, antzekoetan - Hondakinen kudeaketa: o Zabor mota bakoitzerako gaikako bilketarako edukiontziak eduki beharko dira, erabiltzaileek sortzen duten zaborrerako eta enpresa berak sortutakorako. o Zabor mota bakoitza dagokion udal-edukiontzira bota beharko da.		**8.- CRITERIOS MEDIOAMBIENTALES** Criterios obligatorios - Material: o Productos de limpieza más respetuosos con el medio ambiente. Los envases de productos de limpieza estarán correctamente etiquetados. Deben cumplir con los criterios definidos en alguna ecoetiqueta, como la Etiqueta Ecológica de la Unión Europea, Cisne Nórdico o equivalentes en cuanto a la presencia de compuestos químicos en la formulación del producto. - Gestión de residuos: o Disponer de contenedores de recogida selectiva para cada fracción (tanto para los residuos generados por las personas usuarias, como para los producidos por la propia empresa). o Depositar cada fracción en su correspondiente contenedor municipal.
1. ERANSKINA: UDALAK ITSASERTZEN ZERBITZU PROBIKINKALARI EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO DOKUMENTUA		**ANEXO 1: DOCUMENTO SOBRE LA CONSULTA DEL AYUNTAMIENTO AL SERVICIO PROVICINCIAL DE COSTAS**
2. ERANSKINA: ZARAUZKO HONDARTZAKO TOLDOEN KOKAPEN PLANO ORIENTATIBOA		**ANEXO 2: PLANO ORIENTATIVO DE OCUPACIÓN DE TOLDOS EN LA PLAYA DE ZARAUTZ**
3. ERANSKINA: MATERIALEN EZAUGARRIAK		**ANEXO 3: CARACTERISTICAS DE LOS MATERIALES**
4. ERANSKINA: LOKALAREN PLANOA		**ANEXO 4: PLANO LOCAL**